

1. ERANSKINA

ZUZENDARITZA-PROIEKTUAREN EZAUGARRI FORMALAK ETA BALORATZEKO IRIZPIDEAK

1. Proiektuaren ezaugarri-formalak

Proiektuaren gehienezko luzera: 25 orrialde (azala, aurkibidea eta arau-erreferentziak eta bibliografikoak kenduta), DIN-A4, alde bakarrean idatzita, Arial 11 letra konprimatu gabe, 1,5 edo gehiagoko lerroartea. Ezaugarri horiek ez betetzeak **10 puntuko penalizazioa** ekarriko du izangaiak fase honetan lortutako azken baloraziotik. Zuzendaritza-proiektuaren edukia ez da baloratuko 26. orrialdetik aurrera.

2. Proiektuaren ahozko aurkezpena Hautaketa Batzordearen aurrean [10 puntu]

Hautagaiek Zuzendaritza-proiektua Hautaketa Batzordearen aurrean azalduko dute (30 minutu defentsarako eta 15 minutu galdera-erantzunen tarterako), horretarako deitutako bilkura batean. Guztira 10 puntu emango dira azalduko edukiaren kalitateagatik eta originaltasunagatik, bai eta izangaiaren azalpenaren jaria kortasunagatik eta arintasunagatik ere.

3. Proiektuaren edukia eta puntuazioa [gehienez 60 puntu]

1. PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA [10 puntu]	1.1. Proiektuaren justifikazioa, aurkezpena eta zuzendaritza-taldearen identifikazioa. Sustatu nahi diren balioak eta lidergo-estiloa [puntu 1]
	1.2. Ikastetxeak zuzendaritza-proiektuan ezarriko dituen lehentasunak, zuzendaritza-eginkizunaren eskumen-esparruan oinarrituta eta kontuan hartuta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta genero-indarkeriaren prebentzioaren arloko edukiak, bai eta hizkuntza-normalizazioaren arlokoak ere [7 puntu] <u>Marko-kompetentzialaren ideia-gakoak</u> <ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxearen kultura eta ingurua aintzat hartuta plangintza estrategikoa gidatzea, garatzea, gainbegiratzea eta ebaluatzea. • Eraldaketarako antolaketa ezartzeko urratsak. • Lidergo Pedagogikoa: ikas-irakaskuntza prozesuen kalitatea eta ebaluazioa bideratzea. • Lidergo partekatua sustatzea. • Inklusio, ekitatea eta justizia-sozialerako hezkuntza lidergoa garatzea ikasle guztien arrakasta bermatzeko. • Printzipio etikoen arabera eredugarritasunez jardutea. • Elkarbizitza positiboa oinarri hartuta ikastetxea lideratzea. • Berrikuntzak bultzatuz, elkarrekin Ikasten duen komunitateko kideen garapen pertsonala, soziala eta profesionalaren kultura sustatzea. • Parte-hartze demokratikoa bultzatzea eta inplementatzea. • Beste ikastetxeekin, gizarte-ingurunearekin eta administrazioarekin lankidetzan aritzea. • Ebaluazioaren kultura sustatu
	1.3. Zuzendaritza-proiektua egiteko prozesuaren deskribapena eta Zuzendaritza-proiektuak izango duen egitura. [2 puntu]
2. IKASTETXEAREN AZTERKETA DIAGNOSTIKOA [10 puntu]	2.1. Ikastetxearen barne-analisia: zuzendaritza funtzioaren marko kompetentzian oinarritutako autoebaluazioa. Ikastetxeko hezkuntza-komunitateko kideen iritzia. Gainontzeko dokumentu / plan / proiektuen azterketa. Ikastetxeko barne-azterketatik eratorritako indargune eta ahulezien identifikazioa. [3 puntu]
	2.2. Kanpo analisia: kanpo faktoreen analisia eta kanpo eragileen iritzi jasoketa. Ikastetxeko kanpo-azterketatik eratorritako mehatxuen eta aukeren identifikazioa. [3 puntu]
	2.3. Ikastetxearen indarguneak eta hobekuntza proposamenen identifikazioa, barne- zein kanpo-analisia egin ondoren. [4 puntu]

3. HELBURUEN DEFINIZIOA [10 puntu]	3.1. Hobekuntza proposamenak eta Hezkuntza Saitetik datozen ildo estrategikoen lotura. [2 puntu]
	3.2. Hobekuntza proposamenak eta zuzendaritza funtzioaren marko kompetentzialaren erlazioa. [3 puntu]
	3.3. Hobekuntza proposamenetatik eratorritako helburuak. Proposatutako helburuen egokitasuna eta bideragarritasuna. [3 puntu]
	3.4. Agintaldi eperako lehenetsitako helburuak. [2 puntu]
4. JARDUERA-ILDOEN ZEHAZTAPENA [10 puntu]	4.1. Helburu bakoitzaren ekintza zehatzen planifikazioa. [5 puntu]
	4.2. Jarraipen adierazleen definizioa. [4 puntu]
	4.3. Ekintza-ildoen denboralizazioa. [puntu 1]
5. ZUZENDARITZA-PROIEKTUA KOMUNIKATZEA [5 puntu]	5.1. Zuzendaritza-proiektua hedatzeko komunikazio prozesuaren diseinua: <ul style="list-style-type: none"> • Nork, Nori, • Nola, Non eta Noiz burutuko den komunikazioa. [5 puntu]
6. PROIEKTUAREN JARRAIPENA, EBALUAZIOA ETA DOIKUNTZA EGITEA [15 puntu]	6.1. Helburuak lortu diren jakiteko adierazleen definizioa. [5 puntu]
	6.2. Agintaldiak iraungo duen eperako agente-koadroa. Zuzendaritza-funtzioaren marko-kompetentzialetik abiatuta helburuen lorpen adierazleen zehaztapena eta agintaldiko urteetarako denboralizazioa. [10 puntu]